

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3430

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitara ematen baita «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdiaren aldaketa. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko uztailaren 20ko bileran hartutako erabakiaren bidez, onartu egin du «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdiaren aldaketa, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Hala, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua o) apartatua xedatutakoaren arabera (ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuak finkatutako testua), erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio aldaketa hori argitaratzea.

Azaldutakoa dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenena.– Argitara ematea, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdiaren aldaketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2022ko uztailaren 20ko bileran hartutako Erabakiaren bidez onetsitakoa. Ebazpen honen eranskin gisa jaso da erabaki hori.

Bigarrena.– Jakinaraztea laguntzen deialdian egindako aldaketa onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Ohartaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 20a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

«BERROREKARAKO ETA EKITATERAKO LURRALDE-PROIEKTU BERRIEN PROGRAMA. KOLEKTIBO KALTEBERAK» IZENENKO PROGRAMA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ALDAKETA, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez (2021eko abenduaren 21eko bileran hartutakoa), «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onartu zen. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira. Deialdia EHAAn argitaratu zen, 2021eko abenduaren 31n, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez. Ondoren, lehen huts-zuzenketa argitaratu zen 2022ko martxoaren 2ko EHAAn, erakunde horretako zuzendari nagusiaren 2022ko otsailaren 21eko Ebazpenaren bidez, eta bigarren huts-zuzenketa 2022ko ekainaren 16ko EHAAn, erakunde horretako zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez.

Aipatu deialdian araututako laguntzei honako hauek aplikatuko zaizkie: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira presazko neurriak Administrazio Publiko Modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez eratzen baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema; TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez lurraldeka banatzen baitira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko zenbait kreditu, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua («Finantza Erregelamendua»).

Aldaketa honek deialdiko eskaera-epea handitu eta baldintzak hobetzen ditu, dirulaguntzaren onuradunei, diruz lagun daitezkeen jarduerak gauzatzeko moduari eta jarduteko epeei dagokienez. Gainera, ez dira hirugarrenen interesak urratzen, dirulaguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen, ez eta lehiaren printzipioan eragiten ere.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horretako Administrazio Kontseiluak 2022ko uztailaren 20an egindako bileran, onartu egin du «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdiaren aldaketa, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, honela:

Lehen artikulua.– Aipatutako deialdiaren 3. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

«3. artikulua.- Dirulaguntzaren onuradunak.

1.– Deialdi honen esparruan, honako erakunde hauek izan ahalko dira laguntzaren onuradunak, horretarako eskaera egin ondoren:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiak, mankomunitateak, kuadrillak eta udalerrriak, bai eta horien menpe dauden edo horiei lotuta dauden gainerako erakunde eta organismoak ere, sektore publiko instituzional autonomikoa eta tokikoa osatzen dutenak. Era berean, nortasun juri-

dikorik gabeko udalerrien taldeak ere onuradun izan ahalko dira, horietako bat ordezkari dela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

– EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako erakundeak».

Bigarren artikulua.– Aipatutako deialdiaren 4. artikularen 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela idatzita geratuko dira:

«2.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuek honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

8-12 pertsonako taldeekin eratuko dira.

a) Partaide bakoitzaren lan-kontratazioa honako baldintza hauekin egingo da:

– Egindako kontratuek ezingo dute inola ere eragin enplegua eskaintzen duen erakundearen jardura arruntak estaltzerik edo haren ohiko zereginen zerbitzura dauden langileak ordezkatzerik.

– Kontratuen iraupena 6 hilabetekoa izango da, lanaldi partzialean; zehazki, lanaldiaren % 75ean.

– Lanpostu honetan garatuko diren eginkizunak eta edukiak, ahal dela, onura publikoko edo interes orokor eta sozialeko jarduerekin lotuta egon behar dira, garatzen diren inguruaren beharritan erantzun behar diete, eta honako jardura-eremu hauetakoren batean garatu ahalko dira:

- Kaltetuen dauden edo azpi-garata dauden udalerrri eta auzoetan landa-ingurua eta etxebizitzak hobetu eta birgaitzea.

- Laguntza eta arreta ematea hirugarren eta laugarren adineko pertsoneri (silver economy).

- Kaltetutako pertsonak, desgaitasun fisiko edo psikiko baten ondorioz hirugarrenen menpe daudenak edo gaixotasun kronikoren bat dutenak zaindu eta laguntzea.

- Kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea.

- Ondare artistiko eta historikoa sustatu eta berreskuratzea.

- Baliabideak birziklatu eta berrerabiltzea.

- Energia-efizientzia eta energia berriztagarriak bultzatzea.

- Espazio publikoak mantentzea.

- Turismoarekin, denbora librearekin eta kirolarekin lotutako jarduerak garatzea.

- Natura zaintzea: zuhaitz-masak, animalia-espezieak, erreka eta kostaldeen garbiketa.

- Arrakala digitala ezabatzea: eskumen digital urriak dituzten pertsoneri administrazio publikoekiko zeregin administratiboak, erosketak digitalak, banku-eragiketak eta bestelakoak egiten laguntzea.

- Enpresa emakidadunaren lanak amaituta dauden harrobiak berreskuratzea.

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko sareak instalatu eta mantentzea.

- Eraikinen araudi energetiko berria birgaitu eta horretara egokitzea.

- Mugikortasun jasangarria sustatzea.

- Jarduera soziokulturalak eta garapen komunitariokoak garatzea, lehentasuna emanez belau-
naldiarteko komunikazio-kateak ezartzeko aukera dutenei.

- Onura publikoko edo interes orokor eta sozialeko beste edozein jarduera garatzea, ikaskuntza
formala eta lanpostuko jardun profesionala uztartzeko aukera ematen badu.

b) Kontratuan zehar, edo gehienez kontratazioa hasi aurreko bi hilabeteen barruan, eta, edo-
nola ere, lan-jardueraren ordutegia baino lehen, honako hauek egingo dira:

- Zeharkako taldeko ekintza presentzialak, proiektuan aurreikusitako lan-jarduera hobeto gara-
tzeko oinarritzko eskumenetan eginak, gutxienez 80 orduz eta gehienez 200 orduz.

- Proiektuan zehar laguntza-prozesuak errazteko lan-orientazioko ekintza pertsonalizatuak,
horien barruan sartu ahalko direlarik: eskumenen balantzea, lan-merkatuaren informazioa, irteera
profesionalak, helburuen planifikazioa eta enplegua bilatzeko gaitasunak, gutxienez 10 orduz eta
gehienez 15 orduz.

3.– Proiektuak, edonola ere, 2022ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira, eta 2023ko
irailaren 30a baino lehen amaitu.

Ondore horietarako, proiektuaren hasieratzat jotzen da Lanbiden aurkeztutako lan-eskaintza-
ren kudeaketa-eskaria edo prestakuntzaren edo/eta orientazioaren kontratazio-prozeduraren
hasiera.»

Hirugarren artikulua.- Deialdi honen 7.2. artikuluari 17) apartatua gehitzen zaio, eta honela gera-
tuko da idatzita:

«17) Nortasun juridikorik gabeko udalerrien taldeek aurkeztutako eskaeren kasuan, taldea
eratzeko izenpetzen duten agiriaren kopia aurkeztu beharko dute. Bertan, berariaz jasoko dira,
batetik, ordezkari gisa izendatutako udalerria; bestetik, taldeko udalerrietan diruz lagundutako
jarduera garatzeko hartutako konpromisoak; eta, azkenik, horietako bakoitzean, hala badagokio,
aplikatuko den dirulaguntzaren zenbatekoa.

Kasu horretan, 3.2 artikulua azken paragrafoan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena
eta 13), 14), 15) eta 16) apartatuetan eskatutako dokumentazioa sinatu beharko dituzte taldean
dauden udalerrri guztiek.»

Laugarren artikulua.– Aipatutako deialdiaren 7. artikulua 4. apartatuaren lehen paragrafoa
aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

«4.– Eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 24an hasi eta 2022ko irailaren 29an
amaituko da.»

Bosgarren artikulua.– Aipatutako deialdiaren 10. artikulua 5. apartatuaren lehen paragrafoa
aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

«5.– Ibilbide indibidualizatuaren barruan egin beharreko lan-kontratuak 4.3 artikuluan arautu-
tako proiektuak egiteko aldiaren barruan hasi eta amaitu beharko dira.»

Seigarren artikulua.– Aipatutako deialdiaren 12. artikulua 1 a) apartatua aldatzen da, eta
honela idatzita geratuko da:

«a) Egindako jarduketan eta lortutako emaitzen jarduera-memoria. Memorian honako hauek
jaso beharko dira, gutxienez:

- Komunitatearen interesekoa den jardueraren deskribapena, bai eta hasieran aurreikusitako
helburuen betetze-mailak eta ebaluazioa eta partaideen asebetetzeari buruzko inkesta ere.

- Partaideen eta egindako jardueren zerrenda, Lanbidek emandako ereduaren arabera.
 - Partaide bakoitzak sinatutako laburpen-fitxa, prestakuntza-zerbitzuak jaso dituela justifikatzen duena eta emandako orduen kopurua jasotzen duena.
 - Partaide bakoitzak sinatutako laburpen-fitxa, orientazio-zerbitzuak jaso dituela justifikatzen duena eta zerbitzu horretan garatutako orduen kopurua jasotzen duena.
 - Proiektua indarrean egon den bitartean begiralearen/arduradunaren zereginak eta orientazio eta laguntzako zereginak garatu dituzten pertsonen zerrenda (5.3 b artikulua).»
- Zazpigarren artikulua.– Aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie deialdi honen babespean izapidetutako eskaera guztiei, aldaketa hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik edo ondoren aurkeztu diren eta ebatzita edo ebazteke dauden gorabehera.